

IRAKASGAIA: EUSKARA ETA LITERATURA II (A EREDUA)

A AUKERATIK ETA B AUKERATIK HAUTA DITZAKEZU GALDERAK, ATAL BAKOITZEAN ADIERAZTEN DEN BEZALA

A Aukera

Neurri-neurriko¹ eskolaz kanpoko jarduerak

Ikasturtea hastarekin batera hurrek eskola-orduetatik kanpo egiten dituzten aktibitateak hasten dira; adibidez, ingelesa, futbola, judoa, dantza, musika, abestu... aukera oso zabala da. Baina, etxetik kanpo gauza asko dauden arren, etxean bertan umeen formazioa aberasteko zeregin ugari daudela konturatu al gara?

1

Gure seme-alaben formakuntza osatzeko ekintza bila ibiltzen gara beti, gure hurrei hezkuntzarik² hoberena eman nahi diegulako. Guk eskolaz kanpo egiteko ekintza aproposa aurkitu dugu, merkea izateaz gain, formazio-saio ezin hobea dena: *House Working*-a, balio handiko eskolaz kanpoko jarduerak.

5

Zure seme-alabek *House Working* delako jardueran izena eman dutela esaten duzunean, dotore geratuko zara eskola atarian, ziur. Baina, zer da *House Working*-a? Euskaraz esanda, etxeko lanetan laguntzea. Denbora ongi pasatzeko balio izateaz gain, ondorengo helburu hezitzaileak ditu: arduratsuak izaten irakastea, kompetentziak eta abileziak ikastea, edo haien bizimodua eroso egiteko beren gurasoek egindako ahaleginak baloratzen ikastea. Gaztetxoak badira ere, hasi behar dute etxean laguntzen.

10

Etxean laguntzeko jarduera modu desberdinetan gauzatu daiteke: oheak eginez, gelak txukunduz, arropa zikina garbigailura eramanez, arropa zabalduz, erratza pasatuz, altzarietako hautsa kenduz, bazkari eta afarietarako menuak pentsatuz, erosketen zerrenda eginez, erositakoa jasoz, otordu³ errazak prestatuz, erabilitako ontziak garbituz eta bere tokian jasoz, eta abar.

15

Jarduera hori umeak txiki-txikiak direnean hasten da, eta haxe behar du: gurasoek jarduera hori gogo onez egitea, umeek ekintza modu positiboan hartzeko. Eskolaz kanpoko jarduera honen harira, hurrekin istiluren bat sortzea gerta liteke; ez larritu: haiekin hitz egin. Baina ulertu behar dute etxeko lanak egitea etxeko eginbeharrak elkarrekin konpartitzea dela. Eta, zalantza gabe, ikasgai horrek ez du preziorik.

HABE *Ikasbil* aldizkari digitala, <http://www.ikasbil.eus>, 2018/10/03 (MOLDATUA)

[1] Neurri-neurriko: a medida, proporcionadas. [2] hezkuntza: educación. [3] Otordu: Comida en general (almuerzo, cena, etc.).

GALDERAK (OHARRA: Parentesi arteko zenbakiak zein lerrotan dagoen adierazten du)

- **A1. ATALA** (3 GALDERA AUKERATU HAUEN ARTEAN: A1.1., A1.2., A1.3., B1.1., B1.2 eta B1.3)
 - A1.1.- Eman hitz hauen kasua eta numeroa: *etxetik* (2), *umeen* (3), *hurrei* (4), *lanetan* (8), *gurasoek* (16). (1 puntu)
 - A1.2.- Testuinguruan egokia den sinonimo bat eman: *abestu* (2), *asko* (2), *esaten* (7), *hitz egin* (18), *zalantza* (19). (1 puntu)
 - A1.3.- Berridatzi mendeko perpaus hauek (1 puntu):
 - "etxetik kanpo gauza asko dauden arren" (2-3) (Nahiz eta _____)
 - "gure hurrei hezkuntzarik hoberena eman nahi diegulako" (4-5) (_____ bait-...)
 - "gurasoek egindako ahaleginak" (10) (_____ -en _____)
 - "Gaztetxoak badira ere" (11) (_____ arren)
 - "erositakoa jasoz" (14) (_____ ... -rikoa _____)
- **A2. ATALA** (3 GALDERA AUKERATU HAUEN ARTEAN: A2.1., A2.2., A2.3., B2.1., B2.2. eta B2.3)
 - A2.1.- Testuaren ulermena. Zein dira *House Working* delako jardueraren helburuak? (1 puntu)
 - A2.2.- Testuaren ulermena. Zer nolako jarduerak egin daitezke etxean laguntzeko? (1 puntu)
 - A2.3.- Testuaren ulermena. *House Working* jarduera honetan hurrekin arazoren bat sortzea normala da, baina hurrek zer ulertu behar dute? (1 puntu)
- **A3. ATALA** (GALDERA 1 AUKERATU BI HAUEN ARTEAN: A3.1 eta B3.1)
 - A3.1. Idatzi testuari edota gaiari buruz gutxienez 150 hitz. (4 puntu)

3 galdera aukeratu sei hauen artean

A1.1. - A1.2. - A1.3. -
B1.1. - B1.2. - B1.3.

3 galdera aukeratu sei hauen artean

A2.1. - A2.2. - A2.3. -
B2.1. - B2.2. - B2.3.

Galdera 1 aukeratu bi hauen artean

A3.1. - B3.1.

B Aukera

Futbol jokalaria

Ane Etxezarreta (Beasain, 1995) bere herriko taldean hasi zen futboleko jokatzeko eta 2013. urtean Oartzungo taldera eman zuen jauzia¹: "Hasierako etapa hartan, ilusio izugarria neukan. Oartzuneko jokatu nuen bi urteetan heldutasunera² iritsi nintzen, aurrerantz emandako urratsa izan zen hura niretzat". 2015. urtean Realean hasi zen, eta ordutik kirolari gisa hazten³ jarraitu du. Gainera, 2018-2019 denboraldia ahaztezina izan da taldearentzat, Erreginareneko Kopa irabazi baitute: "Ez dut hitzik egun hura eta ondorengoak deskribatzeko. Euforia sentitu nuen". Zubietan berarekin elkartu gara entrenamendua amaitu duenean

1

2015ean Realean jokatzeko hasi zinen...

Bai, bigarren mailatik lehenengora igo nintzen eta intentsitate eta jokatzeko abiaduran aldea nabaritu nuen. Agian ez da horrenbesteko jauzia gaur egun, baina lehen bai. Oso zorrotza zen fisikoki, baita mentalki ere. Fisikoki maila horretara heltzea kostatu egiten da.

5

10

Afizioaren berotasuna edo komunikabideen aitortza⁴ gero eta handiagoak izan arren, gizonezko futbolariak eta emakumezko futbolariak soldaten arteko aldeak⁵ handia izaten jarraitzen du. Hori noizbait parekatuko dela uste duzu?

Gizonezkoek kobratzen dutena guk kobratzea nik uste dut ez dela posible. Hasteko, guk igo ahal izateko, beraien jaitzi egin beharko lukete... Horretan ez naiz sartuko. Nire nahia soldata duina⁶ izatea da. Azken batean gure lana da, eta langile guztiek eduki beharreko baldintza egokiak eduki behar ditugu.

15

Emakume asko kirolari profesionalak dira eta, horrez gain, beste lanbide bat izan behar dute bizi ahal izateko. Hori inoiz amaituko da?

Bukatzea gustatuko litzaidake; izan ere, gure denbora futbolari eskaintzen diogu. Gaur egun, futbolarekin oso zaila da beste lanbide bat mantentzea, nahiz eta beharrezkoa izan bizi ahal izateko. Goizero entrenatzen dugu, eta batzuetan arratsalde ere bai. Beraz, ordutegi horretara egokitzen den lan bat bilatzen edo ordu libreetan ikasten saiatzen gara... Nik, adibidez, IVEF (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak) ikasi nuen Gasteizen, eta hori bukatu nuenean, Realekin arratsaldean entrenatzen genuenez, goizez ingelesa ikastera joaten nintzen.

20

Zer esango zenioke futbolari izan nahi duen neska txiki bati?

Bere ametsa honaino iristea baldin bada, nik beti esaten dut lan asko egiteko, inoiz etsi⁷ gabe. Lana eginda, lehenago edo beranduago, iritsiko da. Saiatua izan beharko du, diziplinaz lan egin eta gauza batzuk alde batera utzi. Sakrifizio hori egiteko prest egon behar da, eta ilusioa, hori ez da inoiz galdu behar.

25

HABE Ikasbil aldizkari digitala, 2019/11/07 (MOLDATUA)

[¹] Jauzia: salto. [²] Heldutasun: madurez. [³] Hazten: creciendo (*hazi*: crecer). [⁴] Aitortza: reconocimiento. [⁵] Aldea: diferencia. [⁶] Duin: digna, digno. [⁷] Etsi: desistir.

GALDERAK (OHARRA: Parentesi arteko zenbakiak zein lerrotan dagoen adierazten du)

• **B1. ATALA** (3 GALDERA AUKERATU HAUEK ARTEAN: A1.1., A1.2., A1.3., B1.1., B1.2 eta B1.3)

B1.1.- Eman hitz hauen kasua eta numeroa: *taldean* (1), *hitzik* (5), *abiaduran* (8), *futbolariak* (11), *ametsa* (25). (1 puntu)

B1.2.- Testuingurua kontuan hartuz hitz hauen sinonimoa eman: *jokatzeko* (1), *iritsi* (3), *amaitu* (6), *agian* (9), *adibidez* (22). (1 puntu)

B1.3.- Berridatzi esaldi hauek (1 puntu):

- "Erreginareneko Kopa irabazi baitute" (5): (_____)-(e)lako
- "...komunikabideen aitortza gero eta handiagoak izan arren" (11): (nahiz eta _____)
- "nahiz eta beharrezkoa izan" (20): (_____ arren)
- "ordutegi horretara egokitzen den lan bat" (21): (_____ -tako _____)
- "Lana eginda,..." (25): (_____ - ez)

• **B2. ATALA** (3 GALDERA AUKERATU HAUEK ARTEAN: A2.1., A2.2., A2.3., B2.1., B2.2. eta B2.3)

B2.1. Testuaren ulermena: Zergatik da ahaztezina 2018-2019ko denboraldia Realeko taldearentzat? (1 puntu)

B2.2. Testuaren ulermena: Emakumezko futbolari jokalariek gizonezkoek bezala kobratzea eskatzen al du Ane Etxezarretak? (1 puntu)

B2.3. Testuaren ulermena: Erraza al da futbol profesionalean jokatzeko eta beste lanbide bat izateko aldi berean? Azaldu zure erantzuna. (1 puntu)

• **B3. ATALA** (GALDERA 1 AUKERATU BI HAUEK ARTEAN: A3.1 eta B3.1)

B3.1. Idatzi testuari edota gaiari buruz gutxienez 150 hitz. (4 puntu)

3 galdera aukeratu sei hauen artean

A1.1. - A1.2. - A1.3. - B1.1. - B1.2. - B1.3.

3 galdera aukeratu sei hauen artean

A2.1. - A2.2. - A2.3. - B2.1. - B2.2. - B2.3.

Galdera 1 aukeratu bi hauen artean

A3.1. - B3.1.